



ZEURE UDALAK INFORMATZEN  
www.laudiokoudala.net  
www.ayuntamientodellodio.net

# ZUIN



Laudio Llodio

LAUDIOKO IBAR NOBLEAREN UDALA  
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE DE LAUDIO/LLODIO

1. hamabostaldia. Apirila 2012 445 Zk. Ale kopurua: 8.000

## Abere feria, artisautza erakusketa eta gainontzeko musika eta kirol ekintzak Dolumin Barikuari leial. Hitzordua: Martxoak 30

Aste Santua heltzeko egun gutxi falta direnean, audioarrek berriz ere eskualdeko feria erakargarriena, sendoena eta jendetsuenaz gozatzeko aukera berri bat izango dugu, beste batez abere eta baserri mundua maitatu eta gozatzeko, azken finean, makina bat urtetan euskal ekonomiaren arima eta bihotza izan den base-ria omentze aldera.

Krisi ekonomikoak ez ditu hurrengo martxoaren 30ean ospatuko den feriarean hitzordurik nabarienak ezerezean utziko.

Aurreko urtean bezala, abere feria goizeko 9:00etatik aurrera Lan Heziketako Udal Ikastetxeko aparkalekuan izango dugu: Aiarako, Orozkoko eta Urduñako kortetako abere onenak bertan izango dira: 60 behi, 50 zaldi, 10 asto, ardi eta ahuntz 20 sorta eta zenbait hegazti sorta herrigunea hartu eta baserriak merezi duen lekua aldarrikatuko dute. Eta gure txikienek, eta batez ere horietako zenbait baserri mundua eta abereak lehendabizikoz ikus eta eza-gutu ditzaten, jaio berri diren txahalak eta bes-telako animaliak ere izango dira bertan.

Animaliak eta, nola ez! Artisautza produktuak. Hogeit bat erakustoki Aldai plaza eta Herriko plazan instalatuko dira gure baserrietako harri bitxiak erakusteko: eskuz egindako produktuak, artisautza bikaina eta gure soroetako produktu freskoenak: kalitatea bizi- bizi, onena maite eta atsegin duten pertsonak asetzearren.

Eta feria sekulakoa izan dadin, kultur eta kirol hitzordurik ez da faltako eguna behar bezala bukatzeko: Santa Luzia abesbatzak bere ohiko kontzertua eskainiko du Lamuzako parrokian eta udal probalekuan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako idi/zaldi probalari onenak izango dira. Zuek ere Erroke Deuna udal probalekuan egingo diren probetako lekuko izan nahi baldin baduzue, adi hurrengo informazioari:

Idi probak udal probalekuan hurrengo egu-netan:

- Martxoak 30 (19:00etan)
- Martxoak 31 (21:00etan)
- Apirilak 1 (18:00etan)
- Apirilak 2 (21:00etan)

## Liburu Azoka apirilaren 1era arte atek zabalik izango ditu Lamuzaz plazan

Lamuzaz plazan apirilaren 1era bitartean zabalik izango den Laudioko liburu azokak, erakusketa eta salmenta 18 toki izango ditu 11:00etatik 13:30etara eta 16:30etatik 20:00etara.

Azokak euskarazko eta erdarazko liburuez osatuta egongo da eta horrez gain, bertan saltzen diren euskal diskogintzako aleek %10eko deskontua izango dute, okasiozko liburuek bezala. Aurtengo edizioak "Euskal Pizkundeari" buruzko erakusketa bat izango du, Aitzolen heriotzaren 75 urte egiten direnean. Lauaxeta, Lizardi, Azkue, Tene Mujika bezalako idazleek literatura eta kultur garai oparoa luzatu zuten euskalgintzari eta horrek nolabaiteko omenaldia beharko du eta izango du gure herrian. Eta guzti hau gutxi balitz "Iberia berria" euskara-georgiar-gaztelania hiztegiaren edizioa ere aurkeztuko da azokan.

Martxoaren 31n Juan Carlos Irizar konpositoreak "Gorbeia-Orozko" bere azken laneko aleak sinatuko ditu eta Jose Javier Abasolo "Hegorik gabeko txoriak" ere zeregin horretan ibiliko da Erein argitaletxearen saltokian.



## Santa Luzia abesbatzaren kontzertua Dolumin Barikua dela eta

Urtero bezala, Santa Luzia abesbatzak Dolumin barikuko kontzertu tradizionala eskainiko du martxoaren 30ean, arratsaldeko 20:00etatik aurrera Lamuzako Kepa Deuna parrokian. Aurtengo kontzertuak kutsu berezia izango du, Santa Luzia abesbatzak 40 urte beteko baititu eta horrexegatik urteetan abesbatzak abestutako erlijio lan garrantzitsuenak eskainiko ditu, besteak beste, "Media Vita", "Ave María", "Nunc dimittis", "Kyrie", "Batlle Hymn of the Republic" edo "Oh when the saints go marching in".



**APIRILEKO AGENDA**

**Martxoak 30:**

- Dolumin Barikua
- 20:00 Santa Luzia abesbatzaren kontzertua Lamuzako parrokiari

**Martxoak 27 eta apirilak 18:**

- 16:30 Afektibitate dependentziari buruzko hitzaldiak Kultura Etxean

**Apirilak 1:**

- 19:00 Bandaren musika kontzertua Lamuzako parrokiari

**Apirilak 7 eta 14:**

- 17:30 eta 20:00 Audio Top Zinema LHulan

**Apirilak 17 eta 19:**

- 18:00 Hirigintzari buruzko hitzaldiak Kultura Etxeko hitzaldi aretoan

**IKUS 3. ORRIA:**

- 38ko, 42ko eta 47ko uzten topaketak

**ETA GOGOAN IZAN...**  
[www.laudiokoudala.net](http://www.laudiokoudala.net)  
 web gunean are informazio gehiago



**Musika bandaren kontzertua Aste Santu audioarra dela eta**

Kontakizun biblikoen musika deskribatzailea eta Santiagorako bidearekin erlazionatutakoa izango dira apirilaren 1ean arratsaldeko 19:00etan musika bandak Lamuzako Kepa Deuna parrokiari eskainiko duen kontzertuaren ardatz. Jardunaldiko musika programa honako pieza hauek osatuko dute: "El arca de Noe", "O camión de Santiago", "Jericho", "Amazing Grace" eta "Ben Hur". Sarrera libre eta doakoa.

**Mazzantinarrei buruzko hitzaldia martxoaren 28an**

Datorren eguaztenean, martxoak 28, arratsaldeko 19:30etatik aurrera, Lamuzako parrokiaren alboan kokatutako Beira Etxeak, Juan Carlos Navarrok eskainitako eta Mazzantini zezen-klubak antolatutako "Los Mazzantini. Entre ferrocarriles, los toros y la política" hitzaldia hartuko du. Sarrera libre eta doakoa.



**OHZren zerga tipo berriaren ezarpena**

Martxoaren 12an izandako ez ohi-ko udalbatzan, (oraindik behin-behineko erabakia da, behin-betikoa izateko hilabete bat pasa behar baita Ordenantza Fiskalen onarpenak duen prozedurak aginduta) OHZren zerga tipoa %0,30etik %0,23ra jaistea erabaki zen. Horrek, ordaindu beharreko kuota, %23,34ko beherakada suposatuko du (kuota = balore katastrala x %0,23). Hala ere kontuan hartu behar da 8 urtean,


zerga tipoak 0,30ean egon behar duela, hau da, aurten Aldundiak luzatutako zenbatekoa 8 urte barru, urtero tipoa puntu batean (%0,01) igoz, ordaindu beharko dugu. Erabaki honek talde politiko guztien babes eskuratu du. Honetaz aparte, errentaren arabera hobari berria ere ezarri da, 21.000€tik beherako errenta jasotzen duten familia-unitateek (baldintza batzuk betez gero) edozein unetan eskatu ahal izango

duena. Eta azkenik, gainbalioaren zerga tipoa, hau da, ondasunak saltzera zoruaren balioagatik ordaindu beharreko zerga, jaitsi egin da. Horrez gain, establezimenduak irekitzeko lizentzia tasak ere jaistea onartu da, %1etik %0,30era. Kontuan izan behar da ere aurten Udalak OHZren zerga ordainketa zatika egiteko aukera ere eskaini duela.

**Laudio Top Zinemak *Tímidos anónimos* komedia frantziarrak eta Disney-ren azken produkzioa dakartzatza**



Komunikazio arazoei aurre egiteko xedearrekin talde terapia batera dioan eta bertan maitemintzen den bikotean oinarritutako komedia frantses dibertigarri batek eta Disney faktoriaren azken superproduzioak Lan Heziketako Udali kasterxera, Audio Top zinema ekimenaz gozatzera hurbiltzen diren segitzailak erakartzeko betebeharra izango dute hurrengo egunetan. Aukeratu zure hitzordua eta gozatu zineaz:  
**-Apirilak 7** *Tímidos anónimos*, 17:30 eta 20:00 LHulan, 1€ AG.  
**-Apirilak 14** *John Carter*, 17:30 eta 20:00 LHulan, 2€ +7 urte.



**Afektibitate dependentziari buruzko hitzaldi berriak Kultura Etxean**

Emakumeek gutxiago pairatu eta zoriotsuago izan daitezela lanean segitzen dute Solastiar, Jakaranda eta Avillo elkarteak eta horrexegatik afektibitate

dependentziari buruzko hitzaldi berriak eskainiko dituzte Marian Urretxu txosten emaile dutela. Hitzordua martxoaren 27an

eta apirilaren 18an izango dira arratsaldeko 16:30etatik aurrera audioar Kultura Etxean. Sarrera libre eta doakoa.

**Indarrean dagoen hirigintza planari buruzko tailerrak apirilaren 17an eta 19an**

Laudioko Udaleko Ideien bulegoak Laudioko hirigintza eta Hirigintza Antolamendurako Plan Nagusiari buruzko bina hitzaldi antolatuko ditu apirilaren 17an eta 19an. **Apirilak 17**, 18:00etan eta Lamuzako parkeko etxe nagusiko hitzaldi aretoan

"Laudioko planeamendu eta hirigintzaren egungo egoera. 1979tik eboluzioa"  
 Laudioko Hirigintza era Ingurumen saileko nagusi Jesús Cebolla Erquiaga eta Antón Agirregoitia hirigintza-arkitektoaren eskutik.

**Apirilak 19**, 18:00etan era Lamuzako parkeko etxe nagusiko hitzaldi aretoan  
 "Laudioko hiri-zoruaren eraberritze aukerak" Laudioko Udaleko arkitekto Fernando Heviaren eskutik

**GAZTE INFORMAZIO GUNEA "LAMUZA"**

LAMUZA 13 KALEA  
[infogazte@audiokoudala.net](mailto:infogazte@audiokoudala.net)  
**ORDUTEGIA:** Astelehen, asteazken eta ostiraletan 16:30etatik 19:30etara

Agiri desberdinak bertan egiteko aukera jarraia



## **Apilek bezeroen fidelitasuna saritu du**

Apilek berriz ere bere bezeroen fidelitatea saritu du, herriko merkataritzagan jarritako konfiantzagatik.

Martxoaren 19an ospatu genuen aitaren Eguna dela eta Laudioko Nafarroako Baserritarren Kutzako bulegoetan fidelitate sariak eman ziren. Herriko jatetxeetan trukatzeko 100 eurotako baleak Javier Ussia Olabarria, Hector García Macho eta Cesar Martínez Gonzálezek eraman zituzten etxera.

Bestalde eta elkartearen facebook-en bitartez Orduñako bainuetxerako bina bono zozketatu ziren Aitaren Eguna zela eta euren opariak erakutsi zituzten guztien artean.

## **Merkataritza eta ostalaritzarentzako laguntzak**

Industria, berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailak euren negozioetan inbertsioak edo berrikuntzak egin dituzten merkataritza eta ostalaritza lokalei zuzendutako MET eta MEC laguntzen deialdia ireki du. Eskerak honako data hauetan aurkeztu behar dira: MET (ekainak 29) eta MEC (ekainak 30). Informazio gehiagorako Merkataritza dinamizatzeko bulegoa (Apillen, 946722801 edo 944030578 telefonoetan).

## **Baisalarekin Lanzarotera**

Baisala Laudioko areto dantzen elkarteak oporretarako irteera antolatuko du apirilaren 7tik 14ra bitartean Lanzarotera. Hoteleko estantziak gain, dantzak, tailerrak eta koreografiak eta uhar-teko parajerik interesgarrienak ezagutzeko aukera emango duen txangoak egingo dituzte parte hartzaileek.



Informazio gehiagorako Baisalako bulegoetara jo eguaztenetan 19:00etatik 20:00etara eta gainontzeko lanegunetan 605 72 34 20 telefonoan edo bestela Eroski bidaietan (Rosa).

## **Andere abesbatzaren kontzertua martxoaren 31n**

Andere abesbatzak martxoaren 31n, arratsaldeko 20:30etan, Vivaldi bezalako nazioarteko autore handien obrez osatutako kontzertua eskainiko du Kepa Deuna parrokiaren Sarrera libre eta doakoa.



## **38ko, 42ko eta 47ko uzten hurrengo topaketak**

Kofi Annan, Luis Aragones edo Espainiako Errege Juan Carlos Lehena **1938an jaio ziren**. Urte berean jaiotako gizon- emakumeak apirilaren 28an bilduko dira Galiziar zentroan egingo den bazkari oparo baten inguruan, eta beraiek bezala oroitzapen eta momento gozoak elkar trukatzeko. Lizen emateak Galiziar Zentroan edo 617 983918 telefonoan (Vicario).

Isabel Allende eleberri idazleak, Juan Mari Arzak edo Forges **1942an heldu ziren mundura**, apirilaren 14an gure he-

rrian bilduko diren makina bat gizon eta emakumeen antzera. Besteak beste meza santua izango dute Guadalupe kaperan 13:00etan eta 14:30ak aldera, Ametsa jatetxean bilduko dira bazkari erraldoi bat egite aldera. Bertan parte hartzeko interesa duten pertsonek 35 euro sartu beharko dituzte apirilaren 8<sup>a</sup> baino lehen 2097 0221 54 0106176635 kontu korrontean, euren izen abizenak tusita. Informazio gehiagorako 675008282 telefonoa (Jaime). Eta azkenik, martxoaren 31n,

**1947an jaiotakoak** -urte horretantxe jaio ziren ere David Bowie edo Paul Auster- euren uzta-kideak antolatutako eguna ospatuko dute, 42an jaiotakoek antolatutako antzeko programa bat jorratuz: 13:00etan meza santua Guadalupe kaperan eta 15:00etan bazkaria Valle de Ayalan hoteleko jatetxean. Interesatuek 48 euro sartu beharko dituzte Vital Kutzako 10-3728423 kontu korrontean. Informazio gehiagorako: 946724930 (José Miguel Aranguren) edo 615791549 (Natxo Arana).

## **YindeYanek antolatutako "Antzerki fisikoa, maskara eta clown" deituriko nazioarteko laborategiaren bosgarren edizioan izena emateko epea zabalik**



Laudioar aktore, zuzendari eta antzerki pedagogo eta YindeYan elkartearen fundatzaile Pablo Ibarluzearen eskutik, abuztuaren 27tik urriaren 5era bitartean "antzerki fisikoa, maskara eta clown" deituriko nazioarteko laborategiaren bosgarren edizioa egingo da gure herrian. Antzezle, dantzari, zuzendari, koreografo, eszenografo, pedagogo eta gorputza eta espazioa lantzen duten gainontzeko pertsonei zuzendutako laborategiak maskara eta clown-ei buruzko ikastaroak luzatuko ditu. Informazio gehiagorako [www.YINdeYAN.com](http://www.YINdeYAN.com).

## **Martxan 2012ko San Roke jaiak iragarriko duen kartelaren inguruko lehiaketa**

Zuin ale hau banatzen denerako, Laudioko Udalak martxan izango ditu, seguraski, 2012ko San Roke jaiak iragarriko duen kartela aukeratzeko lehiaketako oinarriak. Zuen lanak aurkeztu nahi duzenok oi-

narriak eskuragai izango dituzte [www.laudiokudala.net](http://www.laudiokudala.net) web gunean edo informazio gehiagorako deitu 94 403 4900 telefonora.

## **Araba Karate klubak brontzeko lau domina lortu ditu Espainiako txapelketan**

Euskadik asko du ospatzeko eta Araba Karate klubari, nolabait esateko zerbait sor dio izan ere martxoaren erdi aldera Barakaldoko Lasasarre kiroledegian egin zen Espainiako txapelketan brontzeko lau domina eskuratu baitzituen. Araba karate klubeko kide Jessica Gordok 61 kilo baino gutxiagoko norbanakoen kategorian brontzeko lehena domina lortu zuen eta bigarrena, Euskadiko emakumezkoen taldekide gisa. Hirugarren domina Euskadiko gizonetako taldekide kide Arkaitz Santamariaren eskutik eskuratu genuen eta laugarren eta azkeneko domina, Araba karate klubeko irakasle Angel Dazak irabazi zuen, egindako lan bikainagatik. Zorionak!

